

Sarrera

Ez zait gauza erraza BAT-en ale berri honen aurkezpen-laburtzapena egitea. Trinko dator. Eta nekez bil daiteke dena lerro gutxitara.

Kronika-ri dagokionez, eta aldizkari honen irakurleak euskararen gorabeherak orpo-orpo jarraitzen dituen segurantzian, berri harrigarrik ez. "Kultur Kezka" delakoa azpimarragarriena agian: kultur arloko hamaika ekimen (BAT aldizkaria hauxe barne!) arriskutan jarri du Aurrekontu berriak. Egunkaria ere bai, jakina denez; nahiz abiatua den proiektu honek euskaltzale guztien laguntza merezi izan (euskal instituzioena barne). Harrokeriak puztutako erraldoikerien truke ekimen herrikoi apalak suntsitu nahia, zinez, sinetsi ezina da.

Dossier-aren hiru atalek, berriz, badute zeinek bere mami berezia. Euskaltzaletasun herrikoiairen jatorriak gogorazten dizkigu Odriozolak, eta gertatu den loraldia are harrigarriago agertzen da. Euskara Batuari dagokionez, bereziki, bidezkoa da gertakarien hurrenkera oroitaraztea; bultzada Baionako "Euskal Idazkaritzan" abiatu baitzen 1963-1964an, hango talde "deserritua" eta Hegoaldekoa ahal bezala elkar-adituz. Horrekiko erantzuna izan zen 1968an Arantzazun emandakoa. Rikardo Arregi, Arantza Allur, Jaxinto F. Setien, eta abar, gogoan hartzea egiarekiko errespetua besterik ez da; eta Odriozolaren lana mesedegarri izango zaio garai zail haietako euskaltzale askori. "Jakin", "Anaitasuna", "Z. Argia" ere kontutan hartzea, guztiz bidezkoa. Inguru horietantxe ozitu baitziren Euskara Batua eta beste ekimen asko.

Odriozolaren ondoren, F. Muniozguren-ek dakar bere atala; eta oso zuzena da 70. eta 80. hamarkaden arteko desberdintasun funtsezkoa azpimarratzea; herri-mugimenduei buruz ere, ondorio sakonak izan bait ditu joeren aldaketa horrek. Berreskurapenerako bide aldapatsuan, dudarik ez da Txepetx-en ekarpena (eta ez Tesi mardularen ondorioz bakarrik: orain dela 20 urte ezarri zituen Sánchez Carrión-ek euskal Soziolinguistikaren zedariak, bai teoriaren eta bai inkesten alorrean) erabakiorra izan eta izango denik: euskaltzale guztien gogoeta-liburu nagusi bihurtu da "Un futuro para nuestro pasado" famatua, eta hau gertakari pozgarria da.

Saileko hirugarren lana Koro Zumalabe-rena da. Hastapena besterik ez, garbi esaten dugu; herri-mugimenduaren gorabeherak zehazki aztertzekotan bildutako materiala, gaitza bait da, eskerga. Euskararen aldeko Elkarteen inguruko ikerlan hau aurkeztu ondoren, irakaskuntza-alorreko ekimenak aztertuko dira ondoko aleetan; baita helduen euskalduntze-alfabetatzea, lan-mundua, komunikabideak, unibertsitatea, Euskal Herrian Euskaraz mugimendua, E.K.B gure koordinakundea, eta abar. Irakurleak aisa uler dezkeenez, guztiz gehiegi zenbaki honerara biltzeko.

Alderdi politikoek bidali dizkiguten erantzunak argitaratzen ditugu segidan. Arrietak proposatzen duen "euskararen aldeko Itun" hori bidezkoa litzateke; eta egia esan, beste leku batzutan lortu izan dutenaren ildotik lihoake. Flandetarrek eta nederlandarrek Estatu-mugaren gainetik eraiki duten "Taalunie" delakoa, horrelaxe eraiki da, eta horrelaxe ari da lanean. Gehienek aipatzen dute "gizarte-mugimendurekiko errespetua", eta hau pozgarria da. Baina praktikan urte hauetan ikusi duguna ikusita baikorregi izaterik ez dago.

Hegoaldeko euskaltzale askori interesgarri izango zaio, dudarik gabe, "Euskal Kultur Erakundea" ren berri jakitea; eta aagian Euskarak Elkarturik leloa benetan senditzen hasiko.

Iturri bila sailean, berriz, Siguán irakasle nekagaitzaren berri ematen zaigu; baita Mikel

Zalbide-ren bidez, Fishman famatuaren irizpide kezkarrien berri ere (ikus, hain zuzen, honi buruz neronek prestatu dudana: Gaiak sailean aurkeztua). "Haurrak ikastolara bidali, eta bake saildua" ... eroso zen; baina hizkuntza berreskuratzeko ez da inondik ere aski.

Hain zuzen ere, Gaiak Sail honetan, eta Fishmanen lanaren laburtzapenaz gain, mamitsuak dira agertzen diren lanak.

Xabien Isasiren kritika zorrotza, Soziolinguistika matematikoen eskutik oratua, atsekabe gerta dakioko agian zenbaiti. Baina erizpide laxoak gainditzea posible denez, mesedegarria da gure gaia zientzi-zehaztasunez aurkeztea (ahal den kasuetan bederen). Batez ere, Isasik ongi azaltzen duen bezala, oraindik gure inguruetan nagusi diren erizpide ezkor eta negarjoleak (alegia: euskaldunek ez dutela deusik egiten euskarari eusteko, eta abar) faltsuak direla frogatu daitekeenean. Txepetxek aldarrikatzen duen "trinkoketa", bereziki, mamitzen hasia da jadanik. Aski baita ditugun datuak matematikoki aztertzea. Eta hau oso berri ona da.

EKBek prestatzen duen Biltzarre Nagusia oso mamitsu datorrela esango genuke; eta alde zurretik biltzarkideei idarokitzen zaizkien galderak, zinez aproposak, nahiz ez beti erosoak. Dena birplanteiatzeko tenorea etorria dela dirudi.

"Publizkuntza" Kongresoan entzun ziren gauza batzu, oso gogoan hartzekoak ere; eta beharbada gutxiegi erreparatuak.

Azkeneko berri on bat bukatzeko: Xabien Falcón adiskidearen Tesia aurki agertuko dela. Buffalo-ko Unibertsitatean ikasia (hantxe, bai, Kanada eta Estatu Batuen arteko mugan), Barcelonako Unibertsitatean berrikasiaz eta katalanez lasai mintzatzeko gauza delarik, gure gipuzkoar-nafartarraren lanak interesa franko izango du eskierki. Euskal Herrian aspaldidanik Einar Haugen-en ezagutarazle etengabea, zai gauzka denok eta hirrikan.

Ale hau ere interesgarri izango zaizuelakoan,

Txillardegi